

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FERDINAND BERILLON. THE J. PAUL GETTY MUSEUM

FERDINAND BERILLON-EN ESTUDIOKO ARGAZKIAK, 1860KO HAMARKADAN

Ferdinand Berillon, XIX. mendeko bigarren erdialdean Ipar Euskal Herrian nabarmendu zen argazkilaria, jatorriz Pariskoa zen eta argazki estudio bana zuen Baionako 1. zubi berriaren arkupeetan eta Biarritzeko Udaletxeko plazan. Hainbat ikerketaren arabera, 1860 eta 1890 urteen arteko argazkilari aktibotzat jotzen da. Gaur egunera arte iritsi diren irudi gehienak estudioan egindako erretratuak dira, "carte de visite" formatuan. Berillonon argazkiak bere zorrotasunagatik na-

barmentzen dira, baliabide ugari erabiltzen baititu pose landuagoak lortzeko. Bigarren Karlistaldian, Berillonon estudioak Ipar Euskal Herrian aterpetutako boluntario karlista ugari hartu zituen, Santa Cruz apaiza kasu. Artikulua ilustratzen duten bi emakume langileren argazki hauek, beren saskiekin, 1860ko hamarkadan atera zituzten Ferdinand Berillonek Baionan zuen estudioan, eta The J. Paul Getty Museum-en bildumakoak dira.